

# MU GI KOR TA SUNA

OIARTZUNGO Eskolako Agenda 21

2016-2017



**E**skolako Agenda 21 hezkuntza-programan parte hartzen dugun Oiertzungo 3 ikastetxeok (Elizalde Herri-eskolak, Elizalde Institutuak eta Haurtzaro Ikastolak) ikasturte honetan landu dugun gaia MUGIKORTASUN JASANGARRIA izan da.

Programa honi 2004-2005 ikasturtean hasiera eman genionetik hona mugikortasunaren gaia hainbat alditan landu izan dugunez, ez da guretzako gai berria eta aukera eman digu konpromisoetan sakontzeko eta herria azken urteetan mugikortasunaren ikuspuntutik nola aldatu den aztertzeko.

Horrekin batera, ikasturte hasieran Elizalde Herri-eskolak eta Haurtzaro Ikastolak Eusko Jaurlaritza iraunkortasun irizpideekin bat datozen baldintza zehatzak betetzen dituzten ikastetxeei eman ohi dien ziurtagiria lortzeko ibilbideari ekin zioten eta berriki Eskola Jasangarriaren aintzatespena eskuratu dutenez, ZORIONAK!!!

Aldizkari honetan zehar aurten emandako pauso nagusiak deskribatu ditugu. Gustukoa izatea espero dugu!



## AURKIBIDEA

- 03 - Nolakoa izan da parte-hartzea?
- 04 - Zer egin dugu ikasturtean zehar?
- 07 - Herriko diagnosiaren ondorioak
- 08 - Eskolako konpromisoak
- 10 - Udalarentzako eskaerak
- 11 - Eta datorren ikasturtean, zer?

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: IZADI 21


# NOLAKOA

# IZANDA

## PARTE-HARTZEA?

Ikasturte honetan zehar honakoa izan da Eskolako Agenda 21 hezkuntza-programan parte hartu dugun eragileen partaidetzaren kalitatea:

- Ikasleon parte hartzea egokia izan da, aurreko ikasturtean lortutako emaitza mantenduz.
- Gainerako eragileen inplikazioak eta interesak, aldiz, okerrera egin du. Horrela, irakasleen eta Udalaren parte-hartzea erdi-mailakoa izan da (hau da, ez da txarra baina hobe daiteke), baina gurasoen eta irakasle ez diren ikastetxeetako langileen partaidetza-maila nahiko gaizki baloratua izan zen Eskolarteko Foroan.



IKASLEAK



IRAKASLEAK



ESKOLAKO LANGILEAK



GURASOAK



UDALA

# ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZEHAR??

## ELIZALDE HERRI-ESKOLA:

- Haurtzaro Ikastola eta Elizalde Institutuarekin batera, 2015-2016 ikasturtean Udalarai zuzendutako elikadura eta hondakinei buruzko eskaeren erantzunak jasotzeko foroan parte hartu genuen.
- Eskola Jasangariaren X. Aintzatespena lortzeko prozesua aurrera eramán dugu ikasturte honetan zehar eta lortu egin dugu!
- Bizikletaren mantenu egokiari eta bizikletaren oinarrizko mekanikari buruzko tailerrak antolatzea, Gurrpil Artea elkar-tearen eskutik eta baita eskolako irakasleek euren kabuz antolatuta ere.
- Bizikleta-irteerak eta oinez egiteko ibilaldiak antolatzea, ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzeko.
- Irisgarritasunari lotutako tailerrak antolatzea, Elkartu elkar-tearen eskutik.
- Elizalde Institutuarekin eta Haurtzaro Ikastolarekin batera, bide-heziketari lotutako saioak ikastetxeetan egiteko aukerak baloratzeko bileran parte hartzea.

elizalde  
■ ■ ■ HERRI ESKOLA





## HAURTZARO IKASTOLA:

- Eskola Jasangarriaren X. Aintzatespena lortzeko prozesua aurrera eramán dugu ikasturte honetan zehar eta lortu egin dugu!
- Elizalde Herri-eskolak eta Elizalde Institutuak bezala, ikasturtearen lehen lauhilekoan ikastolako mugikortasunari buruzko barne-diagnostikoa landu genuen.
- Bizikletaren mantenu egokiari eta bizikletaren oinarrizko mekanikari buruzko tailerrak antolatzea, Gurpil Artea eta OTXE elkarten eskutik.
- Ikastolako gune ezberdinetan dauden Txoko Berdeak apaintzea.
- Aisleme taldea eta ikastolako atletismo-taldearen elkarlanari esker, sentsibilizazio-saioak aurrera eramatea.
- Sentsibilizazio-jarduerak (kartelak, bideoak, ..) antolatzea eguneroko joan-etorriak autoan egin ordez, ingurumen ikuspuntutik iraunkorragoak diren garraio-bideak erabiltzeko.
- Txinpart aldizkarian, 3 hilean behin, Eskolako Agenda 21i lotutako erreportajea txertatzea.





## ELIZALDE INSTITUTUA:

- Eusko Jaurlaritzak antolatutako mugikortasun seguru eta jasangarriari buruz irakasleei zuzendutako prestakuntza-saioetan parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzak ikastetxeei zuzendutako bide-hezkuntzaren inguruko sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (antzerkia, etab.).
- Bizikletaren mekanika eta mantenuari buruzko tailerrak egin aurretik, bizikletaren erabilera egokiari buruzko erreportajea egitea.
- OTXE eta Gurpil Artea elkarten eskutik, bizikletaren mantenu egokiari eta mekanikari buruzko tailerrak antolatzea.
- Apirilean eta maiatzean zehar, Elizalde Herri-eskola eta Hautzaro Ikastolako ikasleek bezala, mugikortasunari buruzko Oiartzungo diagnostikoa osatzeko kale-ikerketak egitea.










# HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

Ikasturtearen lehen zatian, ikasleok, irakasle eta gurasoen laguntzaz, etxetik ikastetxerako bidean eta ikastetxearen inguruan aurkitzen ditugun mugikortasun arloko arazo, oztopo eta arriskuen lanke-ta bat egin genuen. Horrekin batera, ikastetxe bakoitzaren eraikinaren eta gaine-rako instalazioen egoera aztertu genuen, irisgarritasunaren ikuspuntutik.

Ondoren, azken hiruhilekoan, duela 2 urte eskualde mailan egindako Oarsoal-deko udalerrietako puntu ilunen ikerketa oinarritzat hartuz, herriko auzo ezberdi-nak ikertzerara irten ginen.



## Hauek dira diagnostikoaren ondorio orokorrak:

- Ikasleen zati handi bat etxetik ikastetxera oinez, patinetean edo bizikletan badoa ere, ikasle asko beraien gurasoekin batera auzoan joaten dira, guraso ugari, jarraian, lanera autoz doazelako.
- Ikasleen familien erdiak, gutxi gorabehera, ez ditu erosketak Oiartzungo denda txikietan egiten, saltoki handietan baizik, eta horietara heltzeko, gehienek, autoa darabilte.
- Ikastetxeetako sarrera-irteera orduetan motordun ibilgailuen trafikoa handia dago eskola-eremuan.
- Ikastetxeetako garraio-zerbitzuak batzuetan zaila izaten du ikasleak modu seguruan ikastetxeko sarreran uztea eta baita bertatik jasotzea ere (busaren eremuan, adibidez, autoak aparkatuta egoten direlako).
- Herriko auzo eta eremu zehatzetan, eguneko ordu batzuetan (beste zenbaitetan, aldiz, egun osoa zehar), trafikoa astuna da eta zenbait ibilgailu abiadura handian doaz. Horrek oinezkoen eta bizikleten segurtasunean ere eragiten du.
- Oiartzunen badira emakume, haur eta adinekoentzat arriskutsu gerta daitezkeen puntu ilunak (gune isolatuak edo gutxi erabilitakoak, argitasun gutxiko bideak, lurrazpiko aparkalekuak, eta abar).
- Herriko auzo ezberdinetan badira konpondu edo hobetu beharreko oinezkoen guneak eta espaloiak, bidegorri-zatiak, arriskutsu gertatzen diren bidegurutzeak eta pasabideak, kroska askoko bideak, eta abar.



# HAUEK DIRA OIARTZUNGO ESKOLEK HARTUTAKO KONPROMISOAK:

Maiatzaren 26an Oiartzungo 3 ikastetxeek ospatu genuen Eskolarteko Foroan mugikortasun jasangarriaren gaian hartu ditugun konpromisoak adostu genituen:

**1** Eguneroko joan-etorriak (ikasketak, erosketak, lana, medikua, kirola, etab.) egiteko orduan horrela jokatu dugu:

- Ibilbidea motza bada, oinez edo bizikletan mugituko gara.
- Ibilbide ertain edo luzeetan, garraio publikoa erabiliko dugu. Ezingo balitz, autoa partekatzeko eskatuko diegu gurasoei zein irakasleei.

**2** Pertsona guztien mugikortasuna errazteko asmoz, ikastetxeko eraikinean eta bere instalazioetan beharrezkoak diren hobekuntzak egingo ditugu.

**3** Ikastetxeko instalazioetan bizikletak edo patineteak uzteko aparkaleku gehiago jarriko ditugu. Horretarako leku nahikorik egongo ez balitz, Udalarekin elkarlanean, gertuko eremuren bat egokitzeko bideak aztertuko ditugu.

**4** Ikastetxeko autobusak ikasleak modu seguruan ikastetxeko sarreran utz ditzan, gaur egungo egoera hobetzeko irtenbideak bilatuko ditugu.

**5** Egiten ditugun ibilbideetan arduraz jokatu dugu eta arauak errespetatu ditugu (seinaleak, zebrabideak, semaforoak, etab.): bizikletan goazenean abiadura-mugak zainduko ditugu eta oinezkoak errespetatu ditugu, errepidea behar den tokitik gurutzatu dugu, garraio publikoko geralekuak zainduko ditugu (markesinak, etab.), ..

**6** Ikastetxeak edo Udalak antolatutako mugikortasun jasangarri-rako ekimenen aurrean interesa agertuko dugu eta gure ingurukoak horietan parte hartzera animatuko ditugu ("Oinbusa", antola daitezkeen sentsibilizazio-kanpainak, ..).

# ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?



Ikasturtean zehar etxetik ikastetxera heltzeko topatzen ditugun ariskuak eta oztopoak, Oiartzungo puntu ilunak, eskola-komunitatea osatzen dugun pertsonen eguneroko joan-etorriei buruzko ohiturak eta ikastetxeetako eraikina nahiz gertuko eremua zein egoeretan aurkitzen den aztertu ondoren, hauxek dira maiatzaren 30eko Udala eta ikastetxeen arteko foroan aurkeztu genituen proposamenak:





Ikastetxeetako sarrera-irteerak ikasleentzat seguruak izan daitezzen, motordun ibilgailuen trafikoa mantsotzeko neurriak indartu eta eremua irisgarriagoa dela bermatu:

-Sartu-irteera orduetan, denbora tarte batean bada ere, ikastetxeen gertuko eremua trafikoari ixtea

-Gaizki aparkatzen duten ibilgailuei neurriak ezartzea (espaloien edo zebrabideen gainean aparkatzen duten ibilgailuak, ..)



Bidegorri-sarea egoera egokian mantentzea eta sarea zabaltzen jarraitzea, bai herri mailako loturei dagokionez, baita eskualdeko herriekiko loturei dagokionez ere.



“Xorrola” eta herri-arteko garraio publikoa erabiltzearen aldeko apustua egitea, herritarrei zuzendutako informazio-euskarriak indartuz.



Ikastetxeetako instalazioetan bizikletak uzteko toki gehiago jartzeko aukera ez dagoen kasuetan, ikastetxetik gertu dagoen eremuren bat egokitzeko aukera aztertu.



Mugikortasun iraunkorrari buruzko ekimenak bultzatzea (“Oinbusa” berriz ere abiarazteko pausoak ematea, herriko sektore ezberdinei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak antolatzea, ..).



Ibilgailuen trafiko handiko tokietan (Elizalden zein Oiartzungo auzo ezberdinetan), oinezkoen eta bizikleta-erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko neurriak ezartzea (espaloirik ez dagoen tokietan espaloia eraikitzea, zebrabideak jartzea, abiadura mantsotzeko neurri ezberdinak finkatzea, semaforoak, ..).



Udalarekin elkarlanean, ikastetxeetan berriz ere bide-heziketari lotutako ekimen ezberdinek abian jartzea.



Espaloiak eta oinezkoen guneak egoera onean mantentzea (kroskak eta bestelako oztopoak ezabatzea, estuegiak diren espaloiak zabaltzea, ..).



# ETA HURRENGO IKASTURTEAN, **ZER?**

2017-2018

2017/2018 IKASTURTEAN, AURRENEKO ALDIZ, **ZARATA**  
IZANGO DUGU AZTERGAI ESKOLAKO AGENDA 21EN  
PARTE HARTZEN DUGUN ESQUALDEKO IKASTETXEOK.

IKASTETXE BAKOITZAREN EGOERA AZTERTUKO DUGU,  
OHIKOA DEN MODUAN, ETA BEHIN HORI EGINDA,  
GURE IKASTETXEETAKO INGURUMEN-KALITATEA  
HOBETZEKO EKINTZA-PLAN BAT LANDUKO DUGU.  
ERA BEREAN, OIARTZUNGO EGOERA AZTERTZERA  
IRTENGO GARA, HERRI MAILAN ARLO HONETAN  
EGON DAITEZKEEN ARAZOAK ETA EGIN DIREN  
HOBEKUNTZAK ANTZEMATEKO.